



HEZKUNTZA SAILA

Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Tecnologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes
Avanzados

HEZKUNTZA SAILA

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 7koa, Teknologia eta Ikaskuntza aurreratuen zuzendariarena. Honen bidez, zuzkidura ekonomikoetarako deialdia egiten zaie ikastetxe publikoei Lanbide Heziketako ikasketak direla-eta pertsonak mugitzeko KA1 ekintzak antolatu eta garatzeko ERASMUS + Programaren markoan.

Europar Batasuneko hezkuntza-, prestakuntza-, gaztedi- eta kirol-programa da Erasmus + Programa. Europako Parlamentuko eta Kontseiluko abenduaren 11ko 1288/2013 Erregelamenduaren bidez onartu zen. Erregelamendu horren bidez, Europar Batasuneko Erasmus + sortu zen (hezkuntza, prestakuntza, gaztedi eta kirol-programa), 1719/2006/CE, 1720/2006/CE eta 1298/2008/CE. Erabakiak indargabetu ziren, eta 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte aplikatuko da. Erasmus + hainbat sektoretan banatzen da. Deialdi honek, berriz, Lanbide Heziketako goi-mailako ekintzak eta Lanbide Heziketako erdi mailako ekintzak biltzen ditu.

Deialdi honen bidez, ikasketak direla-eta mugitzen diren pertsonen ekintzak (KA1) babesten dira. Langileak mugitzen dira, eta batez ere irakasleak: prestatzaileak, zuzendaritzetako kideak eta gazteen begiraleak. Ikasleak ere mugitzen dira, Lanbide Heziketako goi- eta erdi mailako sektoreetakoak.

- Ikasleei laguntzea prestatzen eta ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen, pertsona modura gara daitezen.
- LHko ikasleek atzerrian prestatzeko dauzkaten aukerak areagotzea.
- Hezkuntza- eta prestakuntza-eremutik lan-merkatura igarotzeko behar dituzten trebetasunak ematea.
- Lanbide-heziketa eta prestakuntza-sistemak, erakundeak eta enpresak berritzea, eta haien kalitatea hobetzea.
- Hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren eremuetan praktika berritzaileak garatzen laguntzea, eta haiek transferitzea, bai bertan, bai parte hartzen duen herrialdeen artean.

Hona estaltzen dituen ekintzen oinarria:

- Nazioz gaindiko egonaldiak enpresetan edo erakundeetan: Lanbide Heziketako ikasle eta tituludunentzat.
- Lanbide Heziketako egonaldiak eta trukeak: irakasleentzat.

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak Erasmus+ (2017/C 361/04) Programako EAC/A05/2017 proposamen-deialdia argitaratu zuen Europako Erkidegoen 2017ko urriaren 25eko Aldizkari Ofizialean; proposamen-deialdi horretan, 2018ko deialdi-proposamena ezarri zen.



Neurri horiek batera finantzatzeko Europako Erkidegoak jarriko duen ekarpena, orokorrean, ez da ekintza bakoitzerako onesten den aurrekontu osoaren % 100era iritsiko. Beraz, estatu kideek ere finantzatu beharko dituzte onartzen diren ekintzak.

Hori guztia dela eta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Deialdiaren xedea.

1. – Zuzkidura ekonomikoen deialdia egitea Erasmus+ Programaren barruan ikasketak direla-eta langile eta ikasleei onartzen zaizkien mugikortasun-proiektuak batera finantzatzeko, betiere proiektu horiek 2018. eta 2019. urteetan garatzen badira. Mugikortasunaren xede izateko, hartzaileek izan behar dute: Euskal Herriko Lanbide Heziketako ikasleak (matrikulatuak) edo tituludunak (KA1 eskatzaileak, ikasketen azken urtekoak) edo Euskadiko Lanbide Heziketako irakasleak.

Kofinantzazio horrek, horrenbestez, 2018. eta 2019. urteetan garatzen diren mugikortasun-proiektuen aurrekontuen zati proportzionala estaliko ditu.

2. – Europar Batasunak, oro har, ez du iritsiko ekintzaren aurrekontuaren % 100 finantzatzeko. Hori dela eta, Europar Batasunaren finantzaketak estaltzen ez duen aurrekontuaren zatia estaltzeko erabiliko dira deialdi honen bitartez eskuratzen diren zuzkidura ekonomikoak, eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik lor litezkeenak. Dena den, proiektu bererako jaso daitezkeen laguntza guztiek, batera, ezin izango dute gainditu onartutako aurrekontuaren % 100. Nolanahi ere, laguntza guztiek batera % 100 gainditzin badute, dagokion proportzioan murriztuko da laguntza.

2. artikulua. – Ikastetxe onuradunak.

1.- Deialdi honi heldu ahal izango diote Lanbide Heziketako ikastetxeak, Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoen sarekoak direnak, eta Erasmus+ proiektuak onartuta dituztenak.

2.- Ikastetxe horiek Lanbide Heziketako mugikortasun-proiektuetako KA1 ekintzetan parte hartu beharko dute Lanbide Heziketako goi-mailako eta erdi mailako Erasmus + Programaren markoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza.

3.- Erakunde eskatzaileak kudeatzen duen proiektuan parte hartzen dutenek ezin izango dute proiektu horretarako laguntza indibidualik jaso Eusko Jaurlaritzak edo Espainiako Gobernuak kudeatzen duen beste edozein deialdiren bitartez.

3. artikulua.- Izapidetze elektronikoa.

1.- Interesa duten ikastetxeek baliabide elektronikoak erabiliko dituzte prozedura honetako izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko. Horretarako, "Herri-ikastetxeak/ Deialdiak" atarira joko dute (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).



Atari horretan argitaratuko dira deialdi honen fitxa eta beronekin zerikusia duten berriak. Fitxa horren bidez, prozesuan parte hartzea eskatzeko erabilera-gidak eta jarraibideak lortu ahal izango dituzte erabiltzaileek, eta prozeduraren jarraipena egin ahal izango dute.

4. artikulua.- Baldintzak egiaztatzea.

1. Ikastetxe eskatzaileak betebeharrak hauek egiaztatuko beharko ditu eskabidean azaltzen den erantzunkizunpeko adierazpen baten bidez:

- Ikastetxeak adierazi beharko du ea helburu bererako beste diru-laguntzarik, laguntzarik edo bestelako baliabiderik eskatu duen beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuen batean; hala badagokio, jaso dituela adierazi beharko du.
- Ikastetxe eskatzaileak bidezko egiaztatze-lanak egingo ditu ziurtatzeko proiektuan parte hartzen dutenek ez dutela jasotzen Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuak bestelako diru-laguntzarik proiektu horretarako.
- Ikastetxe eskatzaileak onartu beharko du ebazpen honek Erasmus + Programako markoan zuzkidura ekonomikoak batera finantzatzeko ezartzen duena, hain zuzen ere Lanbide Heziketako goi-mailako edo erdi mailako ikasketak egiten dituzten pertsonak mugitzeko KA1 ekintzak antolatu eta garatzeko zuzkidura ekonomikoak batera finantzatzeko ezartzen duena. Era berean, deialdiaren oinarri guztiak ezagutu eta onartu beharko ditu, eta konpromisoa hartu beharko du, zuzkidura ematen bazaio, haren helburuak betetzeko.

5. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

Baliabide elektronikoak erabili beharko dira eskabideak aurkezteko. Horretarako, "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" ikastetxe publikoentzako ataria erabili beharko da (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

Ikastetxe eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Halaber, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Eskabide-orriarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Inprimaki normalizatua. «Proiektua identifikatzea»
- Inprimaki normalizatua. «Proiektuaren kostua kalkulua, I. eranskinaren arabera»
- Hezkuntzaren Internazionalizaziorako Zerbitzu Espainiari (HIZE) Erasmus + Programaren markoko Erasmus laguntza-deialdian egindako eskabidearen ziurtagiria. Dagoeneko proiektuak onartuta daudenean, Agentzia Nazionalarekin (HIZEekin) egindako finantza-kontratuaren kopia aurkeztu beharko dute.



Ebazpen honen I. eranskinean, erreferentzia-taula bat argitaratzen da, proiektu bakoitzak gehienez ere izango duen kostuarena, eta kontuan hartu beharko dena proiektuaren aurrekontua egiteko. Izan ere, gehieneko kostu hori hartuko da kontuan kalkulatzeko zenbat finantzatu proiektu bakoitza behin HIZEren eta bidez edo beste finantzaketa-bideren baten bidez lortzen den laguntza kendu eta gero.

Goian aipatutako dokumentu-ereduak, bestalde, ikastetxe publikoei zuzendutako "Herri-ikastetxeak/ Deialdiak" ataritik deskargatu daitezke (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) PDF formatu betegarrian.

6. artikulua. – Aurkezteko eta zuzentzeko epea.

1. – 2018ko uztailaren 25ean amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 71. artikulua araberak, eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, erakunde interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, hamar eguneko epean; era berean, jakinarazi egingo zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertu, eta ebazpena emango dela (arestian aipatutako lege horren 42. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko da ebazpen hori).

7. artikulua. – Zuzkidurak kudeatzeko organoa.

Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritzako Europako Programen atalari dagokio deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak kudeatzea.

8. artikulua. – Esleitzeko prozedura.

Eskabide guztiak dituenean, zuzkidurak kudeatuko dituen organoak honela esleitu du zuzkidura, deialdi honetako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren:

a) Egiaztatuko du ea aurkeztutako proiektuaren gehieneko kostua egokitzen den ala ez I. eranskinean zehaztutako kostu-parametroetara.

b) Ikusirik zer dokumentazio aurkeztu duen erakunde eskatzaileak eta zein informazio jasotzen den HIZEtik eta beste organismo publiko batzuetatik, ezarriko da zer laguntza ekonomiko hitzartzen duten beste erakunde batzuek proiektu bakoitzerako proiektuok gainfinantzatu ez daitezten.

c) 9. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuko da proiektu bakoitzari dagokion zuzkiduraren zenbatekoa kalkulatzeko.

9. artikulua – Zuzkiduraren zenbatekoa zehaztea.

Ondorengo irizpideak erabiliko dira proiektu bakoitzari esleitu beharreko zuzkiduraren zenbatekoa zehazteko, ERASMUS + (Lanbide Heziketako goi-mailako eta erdi mailako) Programako I. eranskinaren arabera.

Proiektu bakoitza batera nola finantzatuko den kalkulatzeko eta proposatzeko, zuzkidurak kalkulatzeko taulak erabiliko dira, II. eranskinean zehazten direnak (Erasmus + Programa, Lanbide Heziketako goi- eta erdi mailakoa).



Laguntzak kalkulatzeko taula beretan (II. eranskinekoetan) zehazten da zenbatekoak izango diren kudeaketa-kostuen eta hizkuntza-ikastaroen laguntzak.

Behin eragiketa matematiko horiek eginez gero, aurrekontu-erabilgarritasuna behar bestekoa ez bada, zenbateko hau eskatutako betebeharrak betetzen dituzten eskaeren artean banatuko da. Banaketa, zenbateko guztiak ordaintzeko behar den zenbateko osoa kontuan hartuta, hasieran kalkulaturako zenbatekoen proportzio beraren arabera egingo da.

10. artikulua. – Prozeduraren ebazpena.

1. – Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendariak emango du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidurak emateko ebazpena.

2.- Ebazpen hori, berriz, parte hartzen duten ikastetxeei jakinaraziko zaie, ikastetxe publikoei zuzendutako "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bidez (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

3.- Epea amaitu eta erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

11. artikulua. – Zuzkidura ordaintzea.

Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da:

- Lehenengo ordainketa 2018ko aurrekontuaren kargura ordainduko da, ebazpena argitaratu, eta proiektuaren kontratua entregatu eta gero. Kontratuak, berriz, erakundeak sinatuta egon beharko du, eta Europako Hezkuntza-programetarako Erakunde Autonomoari edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari bidalita.

- Bigarren ordainketa, berriz, 2019ko aurrekontuaren kargura egingo da. Horretarako, ereduaren arabera prestatutako behin betiko mugikortasun-plana aurkeztu beharko da proiektuko mugikortasun-ekintza edo -fluxu guztietarako; plan horretan, HIZE kodea azaldu, eta zehaztu beharko da zeintzuk diren mugituko diren ikasleak: izena, abizenak, NAN, xede-estatua, xede-enpresa, eta noiz hasten eta bukatzen den mugikortasuna.

- Hirugarren ordainketa, azkenik, 2019ko aurrekontuaren kontura egingo da proiektuko mugikortasun-ekintza edo -fluxu bakoitza amaitzean, mugitu ahala. Mugikortasun-ekintza edo -fluxu bakoitza bukatuz, gehienez ere hilabeteko epean, erakunde onuradunak Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritzaren Europako Programen atalera bidali beharko du:

- Ziurtagiri bat egindako mugikortasun bakoitzeko.
- Hala dagokionean, hizkuntza-ikastaroen fakturaren kopia; bertan, fakturaren onuradunaren datuak azaldu beharko dira.

Behin ziurtagiri hori jaso eta bertan dauden datuak egiaztatu ondoren, kofinantzazioari dagokion zatia ordaintzeko agindua emango da, egindako mugikortasunen arabera.



Ikastetxe publikoentzako "Herri-ikastetxeak/ Deialdiak" atarian lortu ahal izango dira ereduak, bai behin betiko mugikortasun-planarena, bai mugikortasun-ziurtagiriarena.

12. artikulua. – Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

1. – Hona ebazpen honek arautzen dituen zuzkiduren ikastetxe onuradunen betebeharrak:

- a) Diru-laguntza zertarako ematen den, xede zehatz horretarako erabiltzea.
- b) Jakinaraztea, hala badagokio, ea xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik jaso den estatuko nahiz nazioarteko bestelako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik.
- c) Hezkuntza Sailak egin ditzakeen egiaztatze-lanak onartzea.

13. artikulua. – Zuzkidurak aldatzea eta itzultzea.

1.– Zuzkidura emateko aintzat hartutako baldintzen aldaketa orok zuzkidurak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake; betiere, zuzkiduraren xedea betetzat jotzen bada, eta, hala dagokionean, beste edozein erakunde publiko nahiz pribatutatik aldi berean beste diru-laguntza edota laguntza batzuk lortzen badira. Horretarako, Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritzak kitapen-ebazpena emango du; bertan, eman diren zuzkiduren zenbatekoak doitu egingo dira.

2. – Jasotako zuzkidura eta aplikatu beharreko interesak itzuli beharko dira aipatutako araudi horretan azaltzen den egoeretakoren bat gertatzen bada, eta bereziki:

- a) Erakunde onuradunak aurkeztutako azken dokumentazioan oinarrituta diruz lagundutako jarduerari jarraipena egin ondoren, ondorioztatzen denean jarduerak ez baditu erdiesten diruz lagundutako proiektuan proposatutako gutxieneko helburuak.
- b) Agindu honetan eta agindua garatuko duten ebazpenetan xedatutakoa betetzen ez bada.

14. artikulua. – Datu pertsonalak.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoari jarraituz, deialdi hau bideratzean bildutako datu pertsonalak «Erakunde laguntzaileak» izeneko fitxategi batean jasoko dira –parte-hartzaileek baimena eman dute datu horiek tratatu eta argitara emateko–. Fitxategi horren xedea da: zuzkidura-deialdi hau kudeatzea eta deialdian parte hartzen duten pertsonen deialdiaren garapenaren berri ematea. Fitxategi horren arduraduna, bestalde, Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritza da. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritzaren aurrean balia daitezke. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.



Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztu dituzten agiriak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 7an.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Rikardo Lamadrid Intxaurreaga
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaria